

ARANTZAZU 2024

Apaiz lagunok, eliztar eta fededun maite guztiok:

Beste urtetan bezala, Santutegiko Eliza honetara jende mordo hurbildu da. Arantzazuko Mariaren gaurko jaiaren inguruan, Gipuzkoar asko biltzen gara Mariaren omenez. Gure Gipuzkoako amaren eguna ospatzen dugu. Ohitura polita da, baina ez hori bakarrik. Kristauontzat, meza honetara etorriaz ez dugu batez ere antzinako ohitura bat betetzen, baizik eta gure sinesmena aitortzen eta ospatzen dugu. Gure kristau-elkarteak Arantzazuko Ama Marian bere bizitzarako argia eta inspirazioa aurkitzen du.

Arantzazuko Ama ospatzen dugu, gipuzkoarrentzat oso maitea den jaia, bere erlijioaren ikuspegitik eta gure elizbarrutiko tradizioaren parte garrantzitsua eta oso maitea delako. Dudarik gabe, kristau fedea eta horretatik datozkigun balioek gure herriaren bizitza aberastu eta ernaltzen dute, eta, aldi berean, elkarbizitzan eta guztion onean harmonia bilatzen duten herritar gisa gure bizitzari horizonte etikoa ematen diote. Gipuzkoan, fededun ez diren askok ere eskertzen dute, eta kristau elkarteak guztien onari ematen dion aberastasun hori aintzat hartzen du.

Gaurko jaieguna benetan ederra eta pozgarria da gipuzkoarentzat. Gogora dezagun pixkat gure Arantzazuko historia. Gogoratu nola Baltzategi baserriko Errodrigok, etxe ahuntzen bila zebilela, zintzarri-hotsa entzun omen zuen. Gogora dezagun Errodrigoren inozentzia, amaren irudia arantza artean aurkitzean. Arantzan zu? ¿Tú entre los espinos? Benetan gertakizun esanguratsua izan daiteke gaur guretzat ere.

La alegría de María al visitar a su prima Isabel no es una alegría al margen de la vida normal, en la que también hay espinas y dificultades. Historia honetan inspirazioa aurkitzen dugu gure bizitzarako. Los creyentes, sabemos que, también en medio de las espinas, en medio de las dificultades, podemos encontrar la presencia de Dios, la presencia de María, que nos acompaña y nos sostiene. ¿Qué diferente se viven las dificultades cuando nos sentimos acompañados en medio de ellas! ¿Qué diferente se viven las penas al lado de nuestra madre!

Arantzazuko Amarekin egotea gure bizia itxaropenaren ezaugarri eder eta pozgarri bihurtzen da. Mariaren bisitazioak badu guretzat irakaspen eder hau. Bizitzako pozak, ametsak eta saminaldiak ezagutu zituen Andre Mariak ere. Bere bizitza osoan Jainkoak nahi zuena egiten, zintzo ahalegindu zen. Atsekabeetan Jaunarenganako konfiantza osoa ez zuen inoiz galdu.

Baditugu guk ere saminak eta nahigabeak. Bihotza goibeldu eta geroa iluntzen dizkiguten ezbeharrak. Irtenbiderik ez dagoela pentsarazten digutenak. Itxaropena moteltzen diguten akatsak, eragozpenak eta trabak. Baina sinestunak gara, eta Jaunaren promesean sinisten dugu: Ni zuekin egongo naiz, beti. Zuekin nago eta egongo naiz beti, mundu hau bukatu arte. Hori da gure fedea: Jauna beti-beti gurekin egongo dela.

Al celebrar nuestra fe en Arantzazu, fortalecemos la propia de cada uno. Arantzazu es un lugar donde se experimenta más fácilmente si cabe la proximidad de Dios, en medio de una naturaleza que nos habla de la grandeza y el poder de Dios. Un espacio en el que nos sentimos como en casa de la Madre. Nos sentimos bien. No dejemos de venir aquí a renovar nuestra fe. Bien sabemos que Arantzazu es un lugar privilegiado para hacerlo. Aquí los guipuzcoanos, y las guipuzcoanas, recibimos la gracia de encontrarnos con Él con mayor verdad, con mayor intensidad, con mayor profundidad.

Gipuzkoatik barrena etorri garen guztiok, bi gauza, batez ere ditugu Mariaren aurrean Jaungoikoari eskatzeko: lehenengoa, herriaren sinesmena zaindu, sendotu eta aberastu dezala eskatzen diogu, hain sakon sartuta egon den fedea ez dadila gure herrian moteldu ezta epeldu ere. Bigarrena, gure familien alde. Kurtso hasieran, Jainkoaren bedeinkapena eta amaren babeska eskatzen diogu gure familiakoentzat eta gure gertukoentzat. Baina ez ahaztu: la Fiesta de la Virgen de Arantzazu es una fiesta que ha de ser para todos los guipuzcoanos y guipuzcoanas, en especial, para aquellos que necesitan ser visitados por María y les llene de alegría, para los que están afligidos por problemas y tristezas, para los que viven con la mirada siempre hacia abajo.

Mila esker, frantziskotar anaidiari, hemen ematen duzuen harreragatik. Zuei esker, edonork aurkitzen du leku honetan zuen abegia eta Arantzazuko amaren abegi gozoa eta xamurra. Hona etortzean, denok etxeakoak sentitzen gara. Benetan Amaren etxean sentitzen gara zuei esker. Gracias, de corazón a todos los presentes que habéis venido a celebrar este día de fiesta a Arantzazu. Compartir la fe, fortalece la de cada uno. Sois un testimonio de fe y de esperanza para nuestra diócesis, para nuestra querida Gipuzkoa y, para este obispo que os quiere y reza por vosotros. Eska diezaiogun Jesus gure Salbatzaileari, gure Arantzazuko Amaren bitartez, lagun diezagula gure asmo onak betetzen eta behar duguna lortzen. Hala bedi.

On/Don Fernando Prado Ayuso (Donostiako gotzaina / Obispo de San Sebastián)